

Ezabatu ezin diren markak [Zestafeko eliza]

Zestafeko elizak estilo erromaniko berantiarra erakusten du, dekorazio eskultoriko interesgarriekin bere baoetan. Ataria orain gelaren barruan dago, eta deigarria da arkiboltak eta giza buruen forma duten harburuetan. Gainera, barrualdean, ganga nabarmentzen da, kanoi zorrotzekoa, erromanikoaren berantiar izaera horren isla, eta horma-margo batzuk aldarearen atzealdean, nahiz eta egoera prekarioan egon.

Historia berriena eta traumatikoa: Zestafeko elizan Villarrealako batailaren lehen egunetan matxinatutako eta errepublikarren indarren arteko borroka oso gogorak izan ziren. Goarnizio frankistak erresistentzia basatia erakutsi zuen, eta eliza gotorleku bihurtu zen. Erasoaren markak ondo ikusten dira. Alde batetik, kanpandorea gerraostean berreraiki egin behar izan zuten, eta ondo ikusten da bere fakturaren zati handi bat hormigoizko habeekin garatu zutela. Beste alde batetik, kanpaien ikuspegi xehatuak erakusten du kanpaiek hamarnaka bala-zulo dutela.

Azkenik, elizaren barruan, egurrezko zoruan, kolore orban batzuk ikusten dira, marroi ilunak. Ahozko tradizioak orban horiek duela zortzi hamarkada baino gehiago borrokatu zirenen odoletik datozela finkatzen ditu, Gainera, esaten da, nahiz eta askotan eta ezagutzen zuten modu guztietan saiatu arren, ez dela egon garbitzeko modurik.

Izan ere, badira orban batzuk ezin direnak garbitu eta ezabatu ezin diren markak.

Josu Santamarina Otaola

MEMORIA HISTORIKOAREN IBILBIDEAK ZIGOITIAN

(2019/02/07) FRONTE FRANKISTA (1936-1937)